

pbi



abriendo espacios para la paz
BRIGADAS INTERNACIONALES DE PAZ

2014 / 33. zk

Espainiako Estatuko PBI informazio-aldizkaria

PBI, memoria historikoko prozesuetan laguntzen eta zigorgabetasunaren aurka borrokan

- COFADEH: 30 urte memoria historikoaren aldeko borrokan
- Kolonbia Auzitegi Interamerikanoan. Estatuaren erantzukizuna, Genesis operazioarengatik
- Elkarrizketa aita Alberto Francori, Elizen Arteko Justiziaren eta Bakearen Batzordeko koordinatzaileari
- Conavigua, 25 urte emakume maien eskubideen aldeko borrokan
- Ines Fernandez eta Valentina Rosendo, me'phaa emakumeak, zigorgabetasunaren aurka borrokan
- Espainiako Estatuko PBIren lorpenak 2013an. Jardueren memoria laburra
- Tokiko boluntarioak, PBIren lanaren funtsa



*Guatemalako Alargunen
Kordinakunde
Nazionaleko kidea
(Conavigua).*

FOTO: PBI



abriendo espacios para la paz
BRIGADAS INTERNACIONALES DE PAZ

Edukia

- **Editoriala: PBI, memoria historikoko prozesuetan laguntzen eta zigorgabetasunaren aurka borrokan**
- **Honduras: Cofadeh: 30 urte memoria historikoaren aldeko borrokan**
- **Kolonbia: Kolonbia Auzitegi Interamerikanoan. Estatuaren erantzukizuna, Genesis operazioarengatik. Elkarrizketa aita Alberto Francori, Elizen Arteko Justiziaren eta Bakearen Batzordeko koordinatzaileari**
- **Guatemala: Conavigua, 25 urte emakume maiei eskubideen aldeko borrokan**
- **Mexiko: Ines Fernandez eta Valentina Rosendo, me'phaa emakumeak, zigorgabetasunaren aurka borrokan**
- **Espainiako Estatua: EEko PBIren lorpenak 2013an. Jardueren memoria laburra**
- **Tokiko boluntarioak, PBIren lanaren funtsa**

➔ **Nazioarteko Bake Brigadak (PBI)** gobernuz kanpoko erakundea da, nazioartekoa eta 30 urte baino gehiagoko eskarmentua duena giza eskubideak babesten eta gatazketako eta gatazken ondoko bake-eremuak sortzen. 1981etik, 11 herrialdetan lagundu diegu oinarritzko eskubideen eta aldaketa sozial baten alde indarkeriarik erabili gabe diharduten pertsonen, erakundeen eta komunitateen

Nazio Batuen Erakundeak aitortuta dago PBI, eta nazioarteko laguntza ematen die giza eskubideen alde dihardutenei, haien ekintza-eremuak, egoitzak eta komunitateak mehatxuetatik eta erasoetatik babesteko asmoz. PBIk nazioarteko behatzaile-boluntario taldeak igortzen ditu tokian tokira. Boluntario horiek babesleen ondoan egonda eta tokian, nazioan eta nazioartean politikoki eragiteko lanak eginda, helburua da lagunduta dauden ekintzaileen aurkako erasoak eragozteak.

Gaur egun, PBIk taldeak dauzka Kolonbian, Guatemalan, Hondurasen, Mexikon eta Kenian; Indonesian eta Nepalen, berriz, esplorazio-misioak egiten ari da. Gainera, hamasei talde nazional ditu Amerikan, Australian eta Europan; arriskuan dauden horien berri emanez, jendea sentiberatu eta laguntza- eta elkartasun-sareak eratu nahi dituzte; larrialdiren bat izanez gero, erreakziona dezaten.

➔ **Espainiako Estatuko PBIk** giza eskubideen alde dihardutenak babesten ditu, tokiko proiektuetan lagunduta: diru-bilketak egiten ditugu; politikan eragiteko eta giza eskubideetan sentiberatzeko eta hezteko ekintzak ipintzen ditugu martxan; informazioa banatu eta argitalpenak egiten ditugu; koordinazio-eremuetan parte hartzen dugu, giza eskubideen alde diharduten gizarte zibileko beste erakunde batzuekin; eta abar.

➔ **Nola lagun dezakezu?** PBI erakunde akonfesionala eta independentea da. Horregatik, edonork egin dezake lan ona tokiko PBI taldeen independentziari eusteko. Uste baduzu gure lana baliogarria dela giza eskubideen alde diharduten pertsonak, erakundeak eta komunitateak babesteko, PBIri lagun diezaiokazu, honela: PBIren bazkide eginez eta komeni uste duzun laguntza emanez; gure tokiko taldeek egiten duten lanean murgilduz; tokiko boluntario taldeetan sartuz; eta PBIren berriak hartuz eta sare sozialetan zabalduz.

Argitalpen hau osorik edo zatika kopia daiteke irabazi asmorik ez baldin badago, iturria aipatzen baldin bada eta Espainiako Estatuko PBIri ohartarazten bazaio advocacy@pbi-ee.org helbidera idatzita.

Espainiako Estatuko PBI – Aldizkariaren 33. zk, “Memoria historikoa eta zigorgabetasunaren aurkako borroka”, 2014

Hemen ageri diren iritziak eta usteak ez dira ezinbestean Nazioarteko Bake Brigaden iritziak, ezta haien finantzatzaileenak ere.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Diputatu Nagusia
Giza Eskubideen eta Oroimen
Historikoaren Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Derechos Humanos
y Memoria Histórica

Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundu du aldizkari hau egiten.

Nazioarteko Bake Brigadak (PBI) hasieratik dihardu zigorgabetasunaren aurka eta memoria historikoa berreskuratzearen alde borrokatzen diren erakundeek laguntzen. Bereziki gogoratzekoak dira lehen aldiak GAM Grupo de Apoyo Mutuori laguntzen, 1983an Guatemalan lanean hasi zirenean.

Gaur egun, lagun egiten segitzen dugu, biktimen egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubideak eskatzeagatik mehatxatuta dauden pertsonak, erakundeak eta komunitateak babesteko; hilak eta desagertuak bilatzearen alde borrokatzeko; eta, legelariei dagokienez, giza eskubideen urraketa larriak jasan dituzten biktimen ordezkariak legala gure gain hartzeko.

Tokiko PBIren proiektuetan, gai horiei eman diete lehentasuna, eta memoria historikoa berreskuratze prozesuetan laguntzen dute; orobat, biktimei justizia, erreparazioa eta duintasuna emateko prozesuetan eta alor horretan lan egiten duten giza eskubideen babesleei egun egiten zaizkien errepresio mota guztien aurkako borrokan.

Espainiako Estatuko PBIrentzat ere, lehentasuna da ikuspegi hori, eta horrelako prozesuei ikusgarritasuna ematen ahalegintzen gara. Horregatik erabaki dugu gaikako aldizkari hau egitea, Latinoamerikako herrialdeetan memoria historikoa lantzeko prozesuetan eta zigorgabetasunaren aurkako borrokan ematen dugun laguntzari begira. Era berean, ohartzen gara horrelako borroka eredugarri izan daitezkeela eta haietatik asko ikas daitezkeela gure ingurunean bertan garatzen ari diren borroketarako.

Zoritxarrez, kasu askotan, geldoegi goaz aurrera, baina, 2013an, PBIk lagundutako zenbait pertsonak eta komunitatek gauza handiak lortu zituzten beren prozesuetan:

■ Kolonbiako Cacarcako arroan, afrikarren ondorengo komunitateetako kasua dago, Elizen Arteko Justiziaren eta

Bakearen Batzordekoek lagunduta lortua. 2013ko abenduaren 27an, Giza Eskubideen Auzitegi Interamerikanoak (Coidh) esan zuen Kolonbiako Estatuak zuela 4.000 pertsona baino gehiago bortxaz tokialdatzearen ardura, baita Genesis operazioan Cacarcako Marino Lopez afrikar ondoreko gaztea hil izanarena ere.

■ Ines Fernandez eta Valentina Rosendoren kasuak, Mexikoko Tlachinollan Mendiko Giza Eskubideen Zentroak lagunduta. 2013ko azken egunetan, lau militar atxilotu zituzten 2002an haien bortxatu izana egotzita. 2014an, Mexikoko Armadako lau kide horiek epaitu egingo dituzte foru zibileko justizia federalean, eta ez militarrekoan. Sekula gertatu gabea Mexikon.

Aldizkari honen bidez, Kolonbiako eta Mexikoko kasu horiek ezagutzeaz gainera, honako talde hauen urteurrenak gogoratu eta haien lanak ezagutuko ditugu: Hondurasko Atxilotu-Desagertuen Familiakoen Batzordea (Cofadeh) —30 urte eman ditu memoria historikoa berreskuratze borrokan eta giza eskubideen defentsan— eta Guatemalako Alargunen Koordinakunde Nazionala (Conavigua) —25 urte eman ditu memoria historikoa berreskuratzen, eta justizia eta duintasuna bilatzen—.

Asko dira, munduan, hemen ageri direnen moduko erakundeak eta kasuak, eta prozesu guztietan ari dira protagonistak arriskuak hartzen. Arrisku horiek egiaren, justiziaren eta erreparazioaren izenean hartzen dituzte, baina, batez ere, berriz ez dela gertatuko ziurtatzeko beharrezkoa delako egiten dute. Cofadehko Bertha Olivak dioenez, beharrezkoa da “gizartean memoria historikoa lantzea, eta herritarrak ahalduntzea, berriz ez gertatzeko”. Eta hor egongo da PBI, tokian tokiko prozesuetan laguntzen, biktimek giza eskubideen errespetua eskatzen dutela nazioartean ezagutarazten, haien segurtasuna bermatzeko eskatzen eta nazioartean elkartasuna erakusteko laguntza morala ematen.

HONDURAS

COFADEH: 30 urte memoria historikoaren aldeko borrokan

2012ko azaroan, 30 urte bete zituen Cofadehk, Hondurasko Atxilotu-Desagertuen Familiakoen Batzordeak, Erdialdeko Amerikako herrialde horretako memoria historikoa berreskuratzeko borrokan eta giza eskubideen defentsan.

80ko hamarkadan, dozenaka pertsona desagertu ziren Hondurasen. Besteak beste, Fidel Martinez, Yolanda Solis, Angel Manfredo Velasquez, Julio Cesar Mendez, Teresa de Jesus Sierra, Jose Maria Reyes eta Oswaldo

Castro. Ondoko herrialdean, Nikaraguan, Nazio Askapenerako Fronte Sandinista boterera iritsi zen 1979an, eta, ondorioz, areagotu egin zen Erdialdeko Amerikako mugimendu ezker-tiarren aurkako errepresioa. Herrialde senitarreetan bezala —hau da, El Salvadorren eta Guatemalan bezala—, Hondurasen ere lider sozialak bortxaz desagerrarazi zituzten, gizarteko edozein oposizio klase ezabatzeko estrategian. Hala adierazi du Giza Eskubideen Auzitegi Interamerikanoak (Coidh) zenbait epaitan; epai horietan,

argi adierazten du ekintzetako batzuk Hondurasko agintariek gauzatu zituztela edo haien oniritziarekin gertatu zirela.

Gauzak horrela zirela, Cofadeh eratu zuten biktimen familiek, 1982an, senideak bizirik aurkitzeko helburu garbiarekin. Zoritxarrez, kasu gehienetan ez zuten lortu. Ostiralero biltzen ziren Merced parkean, zapia eskuan, honako lelo hau oihukatuz: “Bizirik eraman zituzten, bizirik nahi ditugu”. Haien artean zen Bertha Oliva ne-



Cofadehk 30. urteurrena ospatu zuen © PBI Honduras.

kaezina; haren senarra Tomas Nativi 1981ean atxilotu eta desagertu zen. Lehen urteetan, Cofadehk lortu zuen zerbait; adibidez, 1988an, Coidheren epaia. Epai horretan onartu zuten Hondurasko Estatuak erantzukizuna zuela Manfredo Vazquez sindikatu-lider eta maisuaren desagerpenean¹.

90eko hamarkadan, Cofadehek helburuak zabaldu eta berriz formulatu zituen, eta giza eskubideen aldeko borrokan erreferente bihurtu zen Hondurasen. Eguneroko eztabaidagai nagusi bihurtu zituen egiarako, justiziarako eta zigorgabetasuna amaitzeko eskubidea eta estatuari bere erantzukizunak onartzeko eskea. Horretaz gainera, erakundeak ezinbesteko eginkizuna



Bertha Oliva, Cofadehko koordinatzaile nagusia, laidoztatu eta estigmatizatu egin izan dute maiz © Pascal Bodemeijer.

hartu zuen bere gain 2009ko estatu-kolpean eta geroko hilabeteetan izan ziren erasoak dokumentatzen eta salatzen.

Borroka gogor horren ondorioz, etengabe beldurrarazi eta mehatxatu zuten Cofadeh. Erakundeak hilketa saioen biktima izan dela salatu du, bulegoetan legez kanpoko sartzeak egin izan dizkiotela, zaintzapean dagoela, mehatxatua eta eraso fisikoak izan dituela. “Gu beldurtu nahi gaituzte, horrela geldituko garela”, esan zuen Bertha Olivak, joan deneko hiru hamarkadetan erakundeko buru eta estatuaren gehiegikerien salatzaile nekazina denak. Hark beti esan izan du beharrezkoa dela gizartean memoria historikoa lantzea, eta herritarrek ahalduntzea,

“berriz ez” gertatzeko. Alde horretatik, besteak beste, Memoria Historikoaren Ibilbidea sortu du, gertaeren historia gordeta geldidadin eta hunkidura ekintza bihurtu dadin. Erakusketa horretan, ezkutuko hilerrak eta kartzelak erakusten dira, baita militar-etxeak eta gizarte-aldarrikapenerako plazak ere.

Giza eskubideen alde egin duen lana dela eta, Bertha Olivak Tulipan saria jaso zuen 2010. urtean. Holandako Gobernuak ematen die sari hori giza eskubideen aldeko borrokan nabarmentzen direnei.

¹ Elkarrizketa Rosalina Tuyuci, PBI, 2013ko azaroa.



Elkarrizketa aita Alberto Francori, Elizen Arteko Justiziaren eta Bakearen Batzordeko idazkari eragileari

2013ko abenduaren 27an, Giza Eskubideen Auzitegi Interamerikanoak esan zuen Kolonbiako Estatuak zuela bortxaz egindako tokialdatzeen ardura, baita Genesis operazioan —militarrek eta paramilitarrek elkarrekin egin zuten operazioan— Cacarican Marino Lopez afrikar ondorengo gaztea hil izanarena ere. 1997ko otsailaren 24 eta 27 artean, 4.000 pertsona baino gehiago tokialdatu zituzten. Urteetan Turbon —baita Panaman ere— aterpeetan eta baldintza prekarioetan bizi izan ondoren, 2000. urtean, Cacaricara itzuli ziren komunitateak,

eta, gatazka armatuaren erdian irauteko, aurreneko eremu humanitarioak eratu zituzten.


Elizen Arteko Justiziaren eta Bakearen Batzordeak lagundu die Cacaricako komunitateei tokialdatu zituzten ordutik. Gizabidez jokatu dute, eta alderdi psiko-soziala eta juridikoa eta ingurumena zainduta, zubi bat eraiki dute nazioarteko komunitatearen eta Cacaricako jendearen artean. Aita Alberto Franco, batzordeko kidea, harrituta dago oraindik borroka horrekin —17 urte dira dagoeneko—, eta harrituta Cacaricako komunitateek nola eraiki dituzten alternatibak eta gatazka armatuaren erdian nola eutsi dioten beren

Aita Alberto Francoren aurka ekin izan dute, eta mehatxu gogorak jaso ditu © PBI Colombia.

lur-eremuari, haien liderrak mehatxatuta egonda ere eta ziurgabetasun batean bizi izanda ere. PBIk elkarrizketa egin zion aita Albertori, auzitegiaren epaiak zer ekarri duen jakiteko.

Zer dakar Giza Eskubideen Auzitegi Interamerikanoak, Cacaricako kasuaz?

Auzitegiaren ebazpenean, alde batetik airtortzen dute estatuak erantzukizuna izan zuela Genesis operazioan Cacaricako komunitateak beren bizitokitik bidali zituztenean militarrek eta paramilitarrek elkar hartuta. Beste alde batetik, ez ikertzea eta komunitateak utzita edukitzea ere egozten diote, baita itzulera behar bezalako



Kartel identifikagarria, Cacaricako Eremu Humanitario bateko sarreran © PBI Colombia.

ziala. Orain proposamenak prestatzen ari dira otsailaren 28rako.

Nola jokatu du Kolonbiako Estatuak epaiaren berri izan duenean?

Oraindik ez dugu bilerarik egin estatuarekin zer neurri hartu behar ote diren aztertzeko. Azkenean, kontua da tokialdatzea militarrek eta paramilitarrek behartu zutela elkarrekin operazio batean. Auzitegiak ikerketa sakon bat eskatu du, eta, zer gertatu den argitzen denean, modua izango dugu Genesis operazioa nork agindu zuten jakiteko, edo Rito Alejo del Rio jeneralak bere kabuz edo politikaren eta ekonomiaren munduko jendeak. Horretaz gainera, jakingo dugu zergatik ez zen ikerketarik egin bere garaian. Orduan, uste dut oso aukera inportantea dela komunitateek beren eskubideak berrets ditzaten, baina, era berean, estatuak biktimen gaian orain arte egin ez duena egin dezan eta hitzetatik ekintzetara igaro dadin. Estatuak du orain arteko bidea moldatzeko modua.

Nola joango dira erreparazio-kontuak hemendik aurrera?

Epaiaren arabera, komunitateekin batera hitzartu behar dira erreparazio-neurriak. Zain daude estatuak bilerara noiz deituko, epaia nola bete eztabaidatzeko. Epaiaren segimendua komunitateek eta eskatzailleek egingo dute. Auzitegia gauzen jakinaren gainean egongo da, eta gobernuan, Kantzileritzak zehaztuko du estatuko zein instantziak esku hartu behar duen kasu honetan.

Nola dago gaur egun Cacaricako komunitateen segurtasuna?

Liderrak mehatxatzen dituzte oraindik, eta ibaian paramilitarrak ibiltzen dira.

Zein interes ekonomiko daude oraindik Cacarican?

Argi dago tokialdatzearen atzean eskualdeko interes ekonomikoak daudela. Bate-tik, toki estrategikoa da, muga; Kariberako

K O L O N B I A

irteera eta komunikabidea da, baita Atlantikoko kostalderakoa, Urabako Golforakoa eta Atrato ibairakoa ere. Atrato oso inportantea da Chocorekin komunikatzeko.

Bestetik, azpiegituratan zenbait interes daude: errepide panamerikarra, Erdialdeko Amerikako lotura elektrikoa eta Venezuelatik datorren eta Pazifikora doan gasbidea. Horietaz gainera, interes turistikoak eta ekonomikoak daude: bananondo ekoizpena eta egur-ateratzeak.

Bioaniztasun-interes oso inportantea dago. Munduan bioaniztasun gehien dagoen tokietako bat da lur hau. Gainera, ur asko dago, gizakiak kutsatu gabea, eta horrek oso aberatsa egiten du. Erabat toki estrategikoa da, eta mingarriena zera da: irabaziak gutxi batzuentzat izango direla; hemen bizi den jendeari, berriz —afrikarren ondorengoei eta indigenei—, kutsadura, heriotza eta hondamena geldituko zaizkio.

Zer eskatu nahi diote nazioarteari?

Komunitateek antolatzen eta indarrak hartzen daukate lanik handiena, proposamen on bat egiteko eta gobernuari eragiteko, erreparazioa osokoa izan dadin. Hori da beharrena. Nazioarteak segimendua egin behar lioke epaiari, komunitateei babes egokia emateko, jendeak egiarako, justiziarako, eta erreparazio osorako dituen eskubideak aldarrikatzeko eta berriz gertatuko ez dela ziurtatzeko.

Beharbada, proposamen hori sendotzeko zerbait pentsa daiteke; euskarri teknikoak eta ekonomikoak ematea, jendeak proposamen sendo bat prestatzeko aukera izan dezan. Zerbait behin-behinekoa eta zehatza izan liteke.

Baina zeregin nagusiak segimendua eta presio politikoa izan behar du, estatuak epaia bete dezan.

baldintzetan ez prestatu izana ere. Oso erabaki inportantea da, komunitateak tokialdatuta egon ziren artean zer ingurumen kalte gertatu ziren agertzen duelako. Gainera, kalte dunen izaera kolektiboa aipatzen du, eta komunitateak zeren beharrean egon diren.

Nola iritsi gara epai honetara?

Prozesu honetan, inportantea izan da komunitateen erabakitasuna, beren eskubideak aldarrikatzeko orduan. Tokialdatu zituztenean, 1997an, elkartu egin ziren, eta aurre egin zioten errealtateari. Denek itzuli nahi zuten, eta hala hasi ziren antolatzen eta erresistentzia ez-biolentoa egiten, estatuari eskubideak aldarrikatzeko eta proposamenak egiteko, kolektiboki tokialdatutakoaren arretarako politika publikorik ez zen garaian. Salaketa- eta antolaketa-prozesuan, Elizen Arteko Justiziaren eta Bakearen Batzordeak lagundu zien beti. Gobernuak bere betebeharrak bete ez zituen —ez kasua ikertuta, ez jendea artatuta—, Giza Eskubideen Sistema Interamerikanoraino iritsi zen afera.

Zer ekarri die kondenak Cacaricako komunitateei?

Auzitegiaren epaia oso inportantea izan zen komunitateentzat; hari esker, zer sufritu zuten adierazi eta erakutsi zuten nazioarteko auzitegi batean. Komunitateak aztertzen ari dira zer den erreparazioa nola osasunean, hala etxe duinetan, hala hezkuntzan, eta zer erreparazio psikoso-

CONAVIGUAREN jatorria eta lehenengo urteak

1 988ko irailaren 12an, hiru egun bileratan eman eta gero, Guatemala Alargunen Koordinatzaile Nazionala eratu zuten (Conavigua) Rosalina Tuyucek gogoratzen duenez —erakunde Zuzendari Talde Nazionalako kidea eta sortzaileetakoa da—, bi sentimendu kontrajarri sumatu zituzten denbora horretan; batetik, poz eta zoriontasun handia, herrialde hartako emakumeek sekula ikusi gabeko talde bat eratu zelako; bestetik, berriz, beldurra, jokoan ipini zituztelako beren bizia eta beste emakume lider askorenak baina, batez ere, seme-alabenak.

Erakundeak urte batzuk lehenago bota zituen erroak. 1985ean, Guatemalako hiru departamendutan —Quiche, Totonicapan eta Chimaltenango—, elkartzen hasi ziren barne gatazka armatuan gizonak galdu zituzten emakume alargunak, herri maia jasaten ari zen zapalkuntza salatzeko. Helburu nagusia emakumeak indartzea eta mugiaraztea izan zen. Hasieran, landa-eremuan hasi ziren mugitzen, bizia defendatzeko eta eskubide indibidualak eta kolektiboak ezagutarazteko, non eta muturreko pobrezia zen tokietan, analfabetismo ikaragarria eta osasun- eta justizia-zerbitzu eskasak; gainera, erabakiak hartzeko eremuetatik baztertu egiten zituzten.

Pixkanaka-pixkanaka, konturatu ziren Guatemala guztira hedatu behar zela mugimendu hori. 1988ko irailaren 10ean, 11n eta 12an egindako Batzar Nazionalan, erakunde formalki osatzea era-

baki zuten; lehen Zuzendari Talde Nazionala hautatu zuten, eta Conavigua zirela zabaldu zuten jendaurrean. “Buru buru jarri nahi genituen alderdi publikoa eta komunikabideak” —esan zuen Rosalinalak—; “bagegienek nola borrokatu gure eskaerak, baganekien nola lan egin erresistentzia egiteko, baina ia-ia ezin ginen gaztelaniaz mintzatu, eta ez genekien ongi nola erabili komunikabide nazionalak eta nazioartekoak. Denborarekin, ikasi genuen kontu horiek denak nol funtzionatzen zuten egoerak behartuta.

Handik aurrera, erakunde emakumeak hainbat arlotan aritu izan dira lanean. Hasierako urteetan, zeregin handia izan zuen Conaviguak errekrutamendu militar behartuaren aurka borrokatzen.

90eko hamarkadaren lehen erdian, lege-ekimen bat ipini zuen martxan, gazteak soldaduskara behartuta eraman orde ez estatuarentzako gizarte-lanak egiteko aukera proposatzeko. 1993ko martxoan, Kongresuan azaldu zuten proposamena, 35.000 sinadurarekin, nazioan eta nazioartean egin zuten kanpaina baten barnean.

Osloko hitzarmenaren konpromisoetako bat dela eta, 1993an, Gertaera Historikoak Argitzeko Batzordea eratu zuten, honako helburu honekin: txosten bat egitea, gatazka armatuan zer gertatu zen objektiboki azalduko zuten zenbait elementu izateko. Handik bost urtera (1998), *Guatemala: memoria del silencio* izeneko lana argitaratu zuten. Conaviguak eta Guatemalako beste erakunde batzuek asko lagundu zuten batzordeak txostenean ezagutu zezan “genozidio ekintzak”

izan zirela eta alargunen eta umezurtzen giza eskubideak urratu zirela.

“Milaka emakumek galdu zituzten senarrak, eta, alargundu eta gero, seme-alabak guraso bakarraren laguntzarekin gelditu ziren. Familia horietako asko, gainera, lurrak hondatzeko operazioetan, ez etxe eta ez alor gelditu ziren”. Aitormen berezia merezi dute beren bizimoduak berreskuratzeko eta familiak mantentzeko izan zituzten lanak”^{*}.

^{*} Ondorioak eta gomendioak lotura honetan: srhl.aaas.org/projects/human_rights/guatemala/ceh/sp/cap4.pdf

Bake Akordioaren testuingurua eta duintasun-eskaera

Conaviguak eragin handia izan zuen 1996an sinatutako Bake Akordioetan ere. Denbora hartan, Corpuma koordinakundea sortu zuten herri maiei kalte-ordaina emateko, eta Conavigua hor sartuta egon zen. Koordinakundearen helburua zera zen: giza eskubideak bortxatu zaizkien biktimen duintasuna berreskuratzea, estatuak mina osa diezaien, bidezko ordaina emanda.

Bakea sinatu zenean, Ordaina Emateko Programa Nazionala sortu zuten honako neurri hauek sartu zituzten:

- ordain materiala: orubearen segurtasun juridikoa, etxea itzultzea eta inbertsio produktiboa;



<http://www.pnr.gov.gt/index.php/medidas-de-resarcimiento>



CONAVIGUAREN 25. urteurreneko zeremonia maia, Guatemalako hiria © PBI Guatemala.

- ordain ekonomikoa: kalte-ordain indibidualak eta kolektiboak;
- erreparazio eta arreta psikosoziala eta errehabilitazioa: indibiduala, familiakoa eta komunitatekoa;
- duintzea: memoria historikoa gordetzea eta berreskuratzea, giza eskubideak urratu zaizkien hildakoak hobitik ateratzea eta ehorztea, duintasun-monumentuak egitea, eta beste;
- ordain kulturala: komunitate eta herri indigenen gizarte-ehuna eta berezko kultura berregitea.

Ordaina emateko programa nazionala osatzea gauza handia izan zen, baina hasieratik daude kezkanak nola Conavigua nola giza eskubideen aldeko beste erakunde batzuk, neurri horietako asko ez dituztelako bete. Hasteko, diru gutxi dago programarako aurrekontua ² hasierako urteetan, 300 milioi ³ baina gehiago ipini zituzten, baina, zenbait urteren buruan, erdia ³ gehiago kendu zuten ³ aurrekontutik. Horrela ezin dira bete programako neurri guztiak. Gainera, Conaviguaren ustez, Ordaina Emateko

Programa nazionalaren ikuspegia ez da izan ordain osoa ematea; hau da, batez ere begiratu zaio alderdi ekonomikoari eta gorpuak hobitik ateratzeko eta ehorzterako koordinazioari, eta alde batera utzi dira berebiziko neurri bi: ordain kulturala eta laguntza psikosoziala.

Gorpuak hobitik ateratzea eta ehorztea

Justizia egiteko eta memoria historikoa eta duintasuna berreskuratzeko Conavigua egiten ari den lanean, PBIk maiz lagundu dio gorpuak hobietatik ateratzean eta herrialdeko hainbat departamentutan ehorztean. Prozesu horretan, erakundeak lege-aholkularitza ematen die barne gatazka armatuko biktimen familiakoei —adibidez, Fiskaltzaren eta Epaitegien baimena lortzeko diligentziatarako— eta jarduera koordinatzen du familiakoekin, Guatemalako Auzitegi Antropologiako Medikuntzaren Fundazioarekin eta bertako agintariekin.

90eko hamarkadaren hasieran atera zituzten lehenengo gorpuak hobietatik, Conaviguaren eta beste erakunde bat-

zuen laguntzarekin —besteak beste, Errepresioaren eta Zigorgabetasunaren Ondorioz Sortutako Sektoreen Koordinakundearekin eta Gizarte Zibilaren Batzarrarekin—. Feliziana Macariok, Conaviguako idazkari nagusiak, gogoan du garai hartan horretan aritzen zirenean tentsio handia izaten zela, gatazka armatu bete-betean eta komunitateetan Autodefentsa Zibilerako Patruilak ibiltzen zirelarik; hala ere, Conaviguak jarraitu zuen prozesu horiek koordinatzen. “Emakumeok ahulagoak ematen dugu, baina, komunitateetako trabak gainditzeko orduan, ausartek izan gara”, esan du. Pixkanaka, departamentu askotara zabaldu zen lana.

Laguntza psikosoziala oso garrantzitsua izan da gorpuak hobietatik atera eta ehorzterako orduan. 1997tik aurrera, laguntza psikologikoa ematen duten erakundeetara jo zuen koordinakundeak, eta 2006tik, bere talde psikosoziala du. Talde horrek arreta psikologikoa ematen du prozesuaren aurretik, prozesuan bertan eta gero, bisita indibidualak eginez, talde-tailerrak eginez eta, behar denean, itzulpenetan lagunduz.

Maien Kosmobisioa ere —Conaviguaren lanaren oinarri dena— oso kontuan hartzen da gorpuak hobietatik atera eta ehorzterako orduan; besteak beste, prozesu horietan nola lagundu, ezkutuko hilobi batean gorpuzkinak nola jaso eta lan psikosoziala. Guretzat, hildakoak ez daude mundu honetan, baina haien es-

² Ordaina Emateko Programa Nazionalaeko 154. puntua: ciidh.org.gt/sites/default/files/files/-nac-resarcir.pdf

³ Guatemalako Estatuako Erreparazioarako Politika Publikoaren Egoera, 12. puntua. Guatemalako Barne Gatazka Armatuko Gizarte Erakundearen eta Biktimen Sarea. 2012ko martxoa

GUATEMALA

Gorpuak hilobitik ateratzen, Aldea Xepalaman (San Jose Poaquil, Chimaltenango, Guatemala)
© PBI Guatemala.

piritua gure artean dago, beti, gure bizi proiektuetan eta gure ongizatean laguntzen eta gu lasaitzen; horregatik da inportantea bakarrik ez gaudela ulertzea”, dio Felicianak, “ulertzea hil diren senideekin goazela beti bidean, elkarturik”.



CONAVIGUAREN 25. urteurrena

Conavigua sortuz geroztik, taldeko kideek irakurtzen eta idazten ikasi dute alfabetatze-kanpainetan; milaka emakumeri erakutsi diote bere eskubideak aitortzen, aldarrikatzen eta defendatzen, errekrutamendu militar behartuaren aurka borrokatzen, Autodefentsa Zibilerako Patruilak kenarazten eta militarizazioa eraisten; justizia bila jo dute nazioarteko auzitegietara; eta beldurra galdu diote Guatemalan giza eskubideak urratu egin direla jendarean adierazteari.

2013ko irailaren 12an, erakundearen hogeita bosgarren urteurrena izan zen; 25 urte, Batzar Nagusi hartan gatazka armatuaren bidegabekeriak jasan zituzten emakumeak formalki elkartu eta beren eskubideen alde nazio osoan borrokan hasi zirenetik. Gaur egun, herrialdeko 12 departamendutan daude, eta 60.000 emakume baino gehiago dira erakundeko kide; oraindik eta emakume gehiago ari dira sartzen alargun ez izan arren, ziur daudelako emakumeen eta berezko herritarren eskubideen alde borrokatu beharra dagoela.

“Hogeita bost urte pasatu dira Conavigua osatu zenetik; erakunde aurrera joan da justiziaren eta egia bide luze honetan, eta indartu egin ditu bere pausoak eta herrialde osoko hainbat talderenak, zuhaitzak indartzen diren bezala, erro sakonak botata emakumeen bihotzetan”*.

* CONAVIGUA: Emakumearen Elkartasunagatik eta Duintasunagatik.

MEXIKO

Ines Fernandez eta Valentina Rosendo, me'phaa emakumeak, zigorgabetasunaren aurka borrokan

Ines Fernandez eta Valentina Rosendo bi emakume me'phaa dira, Guerreroko estatukoak. 2002. urtean, bortxatu eta torturatu egin zituzten Mexikoko Armadako kideek. Justizia bila

ibili dira denbora luzean, baina behin eta berriz ukatu dizkiete osasunerako eskubidea eta ikerketa inpartzial bat, eta erasotzaileak ez dituzte zigortu. Ez dute lortu erasoetatik eta

bortxaketetatik babestuak izatea ere, eta hori Mexikoko Estatuak bermatu behar zien emakume eta giza eskubideen defendatzaile diren aldetik. Mexikoko PBIk lagundu

egin die Ines Fernandezi eta Valentina Rosendori justizia bilatze horretan, isilarazi nahi dituztenek erasotzeko arriskuan baitaude bai haiek bai haien familiak.



Ines Fernandez eta Valentina Rosendo © Tlachinollan Mendiko Giza Eskubideen Zentroa.

Helegiteak Batzorde Interamerikanoari

Foru militarrean justizia ukatu eta gero, Ines Fernandezek eta Valentina Rosendok justizia bilatu zuten Mexikotik kanpora. Orduan, CIDH Giza Eskubideen Batzorde Interamerikanora joan ziren, eta bi kasuak onartu zituzten, 2006an. CIDHek gomendio batzuk eman zizkion Mexikoko Estatuari, egindako minaren ordain gisa, eta, Mexikok ez zuenez ezer egin, Coidh Giza Eskubideen Auzitegi Interamerikanora jo zuen gero, eta bi salaketa aurkeztu, baita auzitegiak biak onartu ere. Coidhen egindako bi entzuketetan, Mexikoko Estatuaren ordezkariak ukatu egin zuten Indar Armatuak horrelakorik egin izana, baina aitortu zuten ikerketa ez zutela behar bezala egin.

Auzitegi Interamerikanoaren epaiak

Azkenean, Coidhek frogatutzat eman zuen, 2010eko abuztuaren 30eko eta 31ko epaiketetan, Mexikoko Armadako kideek bortxatu eta torturatu egin zituztela Ines Fernandez Ortega eta Valentina Rosendo Cantu. Zortzi urtez beren herrialdean bertan justizia ukatu eta gero, epai horietan bidegabekeria sufritu izana aitortzen zaie Ines Fernandezi eta Valentina Rosendori, eta beren, familiakoen eta haien kasua zabaltzen eta defentsa legala prestatzen lagundu zuten guztien alde egin dute epaiak.

Coidhek Mexikoko Estatuari eskatu zion bi defendatzaileek sufritutako mina erabat osatzeko, eta haien segurtasuna bermatzeko, sexu-bortxaketak eraginkortasunez ikertzeko

eta erantzuleak auzitegi zibil batera eramateko. Era berean, agindu dute diziiplina-prozedurak hasteko arduragabekeriaz jokatu zuten funtzionarioen aurka, ikerketak tratatzeagatik eta Ines Fernandezi eta Valentina Rosendori behar bezalako arretoa medikoa ematea ukatzeagatik. Hala, ziurtatu nahi dute beste emakume batzuei horrelakorik ez zaiela gertatuko.

Inesek eta Valentinak handia lortu dute, hamabi urtez justizia bila ibili eta gero

PBIk behin eta berriz eskatu zuen Coidh Giza Eskubideen Auzitegi Interamerikanoko epaiak betetzeko. Mexikoko Estatuak pauso on batzuk eman zituen epaiak betetzera begira, eta, zenbait kasutan, aurrerapenak ere izan dira. Tlachinollan Mendiko Giza Es-

kubideen Zentroak lagunduta, lortu zuten Giza Eskubideen Arloko Zereginak Betetzeko Fideikomisoa eratzea, Coidhek ezarritako ordainak jasotzeko; fideikomiso horren bitartez, Sistema Interamerikanora iristen diren kasu guztietako biktimek izango dute onura hori. Baina aurrerapenik handiena 2013ko azken egunetan etorri zen; lau militar atxilotu zituzten 2002an Ines eta Valentina bortxatu izana egotzita. 2014an, Mexikoko Armadako lau kide horiek epaitu egingo dituzte foru zibileko justizia federalean. Sekula gertatu gabea Mexikon.

PBIk zorionak ematen dizkio Inesi eta Valentinari, lorpen izugarri onegatik, eta espero du hurrengo atxilotzen diren pertsonen aurkako prozesuak modu inpartzialean eta lege estandarren barnean egingo direla. Ezin da ukatu prozesu horien garrantzia; izan ere, zigorgabetasuna da trabarik handiena bortxaketak jasan dituzten biktimek justizia izan dezaten.

Hamabi urtez beren eskubideengatik borrokan ibili ondoren —horietako asko PBIk lagunduta—, Inesek eta Valentinak hurbil dute justizia. PBIk jarraitzen du Mexikoko Estatuari eskatzen Justizia Militarren Kodigoa berri dezala eta berma dezala militarrek giza eskubideak urratzen dituzten guztietan foru zibilaren barnean epaituko dituztela.

PBlk ematen duen babesa areagotzeko funtsezko jarduerak dira honako hauek: birak antolatzea, PBlren proiektuak laguntzen dituen giza eskubideen defendatzaileekin; giza eskubideen sentiberatze- eta hezkuntza-kanpainak egitea, eta zabalkunde- eta komunikazio-lanak gauzatzea.

2013an, Espainiako Estatuko PBlk lan handia egin du politikan eragiten, sentiberatze-kanpainetan, hezkuntzan eta komunikazioan, eta, horri esker, zabaldu eta indartu egin da PBlren Nazioarteko Laguntza Sarea. Defendatzaileak harremanetan jarri gero erabaki politikoak hartzen dituztenekin, gizarte zibileko erakundeekin, akademiaren munduko ordezkariekin eta legelariekin, trukeak

egingo dizkiote elkarri, eta modu askotara lagunduko eta elkartasuna emango diete batzuek besteei.

Orain, Espainiako Estatuko PBlren izako jarduera nagusiak agertuko ditugu, labur. Jarduera horiek antolatzeko eta arrakastaz gauzatzeko, ezinbestekoak izan dira PBlko boluntarioak tokiko taldeetan.

Giza eskubideen defendatzaileen birak, Espainiako Estatuko PBlk 2013an antolatuak eta lagunduak

Urtarrila: Rubens Silva Mexikoko Proiektuko boluntarioaren bira antolatu zen, 2012ko esplorazio-misioaren emaitzak ezagutarazteko eta herrialdearen iparraldean beste talde bat osatu dela jakinarazteko.

Martxoa: Taula Colombianarekin eta Justicia por Colombiarekin batean, bira antolatu zen Franklin Castañeda Preso Politikoekiko Elkartasunaren Batzorde Fundaziokoarentzat eta Ana Maria Rodriguez Kolonbiako Juristen Batzordekoarentzat, zenbait inzidentzia-bilera egiteko, Kolonbiari egindako Aldizkako Azterketa Unibertsalaren harira.

Apirila: Lorena Cabnal Guatemalako defendatzailearen bira, sentiberatze- eta zabalkunde-jarduerak antolatzen eta laguntzen aritu ziren. Santa Maria de Xalapan Emakume Indigenen Elkartekoa da Lorena Cabnal, eta Espainiako hainbat hiritan izan zen Guatemalako gizarte-mugimendua jasaten ari den errepresioa eta kriminalizazioa salatzen.

Maiatza: IEPALAK antolatutako biraren jardueretan laguntzen eta parte hartzen aritu ziren, Yolanda Oqueli guatemalarr defendatzailearekin —La Puyaren Erresistentzia Baketsukoa— eta Bertha Oliva hondurastarrarekin —Cofadehko lehendakaria—.

Ekaina: Aita Alberto Francoren bira antolatu zuten (Kolonbiako Elizen Arteko Justiziaren eta Bakearen Batzordeko idazkari eragilea da bera). Politikan eragiteko, sentiberatzeko eta komunikatzeko jarduerak egin zituzten, eta honako jarduera hauek izan ziren ardatza: batetik, Elizen Arteko Justiziaren eta Bakearen Batzordeak Kolonbian erresistentzian ari diren komunitateei laguntzen zer lan egiten duen erakustea eta, bestetik, bake-negoiazioetan giza eskubideen defendatzaileek gaur egun zer lan zaila daukaten azaltzea.

Iraila: Alma Rosa Garcia Guevara mexikar defendatzailearen bira antolatu zuten (“Fray Juan de Larios” Giza Es-

kubideen Aldeko Elizbarrutikoa da bera). Bira horretan, eragite-, sentiberatze- eta komunikatze-jarduerak egin zituzten, Mexikori egin behar dioten Aldizkako Azterketa Unibertsalaren harira.

Iraila: Mexikoko “Eskubide Guztiak Guztientzat” Giza Eskubideen Erakunde Sare Nazionalaren bira lagundu zuten; zehazki, Agnieszka Raczymskarentzako —TDT sareko idazkari eragilea— eta Blanca Isabel Martinezentzako —“Fray Juan de Larios” Giza Eskubideen Aldeko Elizbarrutiko zuzendaria— eragite- eta sentiberatze-jarduerak antolatzen eta haietan laguntzen, Mexikon giza eskubideak zertan diren aztertzeke, Mexikori egin behar dioten Aldizkako Azterketa Unibertsalaren harira.

Urria: Edgar Fernando Perez Archila giza eskubideen defendatzaile guatemalarraren bira antolatu zen (Guatemalako Giza Eskubideen Bufete Juridikoko abokatu zuzendaria da bera). Biran, erabaki politikoak hartzen dituztenei, ju-

ristei eta gizarte-erakundeei Jose Efrain Rios Montt presidente zenak gizadiaren aurka egindako genozidioen eta krimen inguruko sententzia historikoa jakinarazi zitzairen, eta Guatemalan giza eskubideen urraketa larriak jasan dituzten biktimek justiziara jotzeko dituzten zailtasunak azaldu.

Abendua: Jesus Emilio Tuberquia Kolonbiako defendatzailearen biran lagundu zuten (San Jose Apartadoko Bake Komunitateko Barne Kontseiluko kidea da bera). Eragiteko eta sentiberatzeko jarduerak egin ziren, Bake Komunitatearen Europako bira batean, Kolonbiako gatazka armatuaren, politikoaren eta sozialaren kolpeei modu baketsuan aurre egiten dietela erakusteko.



*Edgar Perez Guatemalako abokatu,
Espainiako Estatuko PBIrekin. © EEko PBI.*

Kontzientzia kritikoa sorraraziz. Tokiko PBI taldeek sentiberatzeko egin dituzten jarduera nagusiak

Kantabriako PBI

- “Izan al naiteke giza eskubideen defendatzaile?” tailerra, Kantabriako Unibertsitatean.
- Ekitaldi publikoa, Lorena Cabnal Guatemalako defendatzailearen partaidetzarekin, La Vorágine liburudendan.
- Las Gildasko denboraldia amaitzeko erakusmahai informatiboa.
- “Resistencia no violenta en Colombia. Una mirada a las Comunidades de Paz” ekitaldi publikoa, CIJPeke aita Alberto Francorekin.



- Erakusmahai informatiboa Santanderko Kultur Arteko Festibalean.
- “Defensores y defensoras de DD.HH en México” ekitaldi publikoa, Alma

*PBIko boluntarioak,
Las Gildasko itxieran,
Kantabria. © EEko PBI.*

ESPAINIAKO ESTATUA

Rosa García Guevara mexikar defendatzailearekin, La Voragine liburudendan.

- PBIren Mexiko Proiektuaren “Involúcrate” bideo-emanaldia, Somos Cortos lehiaketan, Santanderko Bolero tabernaren 25. urteurren-festan.
- Erakusmahai informatiboa, Las Gildasko 16. denboraldiaren irekieran.
- “Cómo llevar a juicio a un dictador y otras luchas en Guatemala” ekitaldi publikoa, Edgar Perez guatemalar abokatuarekin, La Voragine liburudendan.
- “Colombia: la construcción de la paz y la justicia. Propuestas desde el movimiento popular y feminista” ekitaldi publikoa, M. Jesus L’Hoeste kolonbiar defendatzailearekin, La Voragine liburudendan.
- Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala irakurtzeko ekitaldia, beste talde eta kolektibo batzuekin batean, Kantabriako Unibertsitateko Kooperazio Gelak deitua, eta Kantabriako Amnistia Internazionalak antolatzen duen irakurraldia.
- “ROSTROS QUE LUCHAN. Defensores y defensoras de derechos humanos en primer plano” argazki-erakusketa, Kantabriako Unibertsitateko paranin-foan eta Torrelavegako Gimbernat Unibertsitate Eskolako atartean, UCren Garapenerako Nazioarteko Kooperazio Gunearen laguntzarekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko PBI

- Bi prestakuntza-jardunaldi, Donostian, giza eskubideen promozioaz eta defentsaz:

- » Otsailean, “Defensoras de derechos humanos bajo amenaza” jardunaldia, giza eskubideen promozioaz eta defentsaz, defendatzaileen ikuspegitik.
- » Azaroan, “El acompañamiento internacional a los y las defensoras de derechos humanos como herramienta de solidaridad internacional” jardunaldia, Santiago Mera Kolonbiako Elizen Arteko Justiziaren eta Bakearen Batzordeko giza eskubideen defendatzailearekin.
- » Bilbon, Kolektiba Colombiarekin eta Amnistia Internazionalarekin, “El costo de la Paz” zineforuma, Jesus Emilio Tuberquia San Jose Apartadoko Bake Komunitateko kolonbiar ordezkariarekin.

Madrilgo PBI

- “Colombia desde el terreno: La defensa de los Derechos Humanos desde la visión de los y las voluntarias” hitzaldia, Miguel Choza Kolonbiako Proiektuko boluntarioarekin eta Mar Saiz Mexikoko etorkizuneko boluntarioarekin, Madrilgo Traficantes de Sueños liburudendan.
- “México entre dos Fronteras: La defensa de los DDHH en medio de la violencia” hitzaldia, Mexikoko Gabriela Morales giza eskubideen defendatzailearekin; Mexikoko PBIko boluntarioarekin; eta Nicolas Castellano Nazioarteko Behaketa Misioko kide eta kazetariarekin, Mexikoko Migratzaileak 2012ri buruz. Madrilgo Unescoren Adis-kideen Batzordean egin zuten.
- “Impacto de los Megaproyectos de las Empresas en Latinoamérica” tailerra, Madrilgo Carlos III.a Unibertsitateko Elkartasun Astean.

- “El acompañamiento Internacional como herramienta de protección a los y las defensoras de Derechos Humanos” hitzaldia, Pintoko Trilce Culturalen, Madrilen.
- Kolonbiara egindako Juristen III. Nazioarteko Karabanaren txostenaren aurkezpeneko ekitaldi-mahaian parte hartzea, Abokatuen Elkarte Libreak eta Espainiako Abokatuen Kontseilu Nagusiaren Fundazioak antolatua, Ruben Manteconen bidez.
- Amnistia Internazionalarekin eta Mexikorekiko Elkartasun Batzordearekin batean, “Defensores y defensoras de derechos humanos en México. Situación actual y desafíos camino al Examen Periódico Universal”, Alma Rosa Garcia Guevara giza eskubideen defendatzailearekin, Traficantes de Sueños liburudendako E35 gunean.
- Mexikorekiko Elkartasun Batzordearekin batean eta COMPlaren laguntzarekin, “Situación de los derechos humanos en México: Balance desde la sociedad civil en el camino al EPU” ekitaldi publikoa, Agnieszka Raczynska TDT sareko idazkari eragilearekin eta Blanca Isabel Martinez “Fray Juan de Larios” Giza Eskubideen Elizbarrutiko zuzendariarekin.
- “Encuentro con Edgar Pérez Archila y Juan Francisco Soto, abogados y defensores de derechos humanos” ekitaldi publikoa, Espainiako ONGDko Koordinakundean.
- Tu Voz Cuenta plataformaren erakundeekin batean, “El impacto del austericidio y los recortes en derechos desde una lectura feminista: múltiples formas de violencia contra las mujeres” ekitaldi publikoa; hor aritu ziren Astrid Agenjo Calderon Secillako Pablo de Olavide

Colombia 2013



El derecho a vivir en paz

Bakean bizitzeko eskubidea



Situación actual

XIV JORNADAS

Junio del 10 al 20

A las 19:30 en la sala social de ZABALDI en la calle Navarrería 25, Pamplona

Lunes 10 Junio

Charla: "Una visión desde el mundo indígena" con Alex Guanga, líder del pueblo indígena Awa.

Martes 18 Junio

Charla: "La realidad de las comunidades de paz" con Alberto Franco, jesuita y miembro de la organización de Derechos Humanos "Justicia y paz".

Miércoles 19 Junio

Charla "¿Dónde están las conversaciones de paz?" con Javier Orozco, representante en el estado español del sindicato de Trabajadores del Instituto de la Reforma Agraria de Colombia y exiliado Colombiano.

Jueves 20 Junio

Cine pobre, documental "15 años acompañando a defensores y defensoras de DDHH en Colombia".

Egungo egoera

XIV JARDUNALDIAK

Ekainaren 10etik 20era

19:30etan izanen dira ZABALDI Nabarrería 25 kalea, Iruñea

Ekainaren 10 astelehena

Alex Guanga -Awa indígena herriaren liderraren- hitzaldia: "Una visión desde el mundo indígena" izenekoa.

Ekainaren 18 asteartea

Alberto Franco, "Justicia y paz" Giza Eskubideen aldeko erakundearen kidearen hitzaldia: "La realidad de las comunidades de paz" izenekoa.

Ekainaren 19 asteazkena

Hitzaldia: "Non daude bake-elkarrizketak?". Javier Orozco, erbesteratua eta espainiar estatuan "Trabajadores del Instituto de la Reforma Agraria de Colombia" sindikatuko ordezkariak, emandakoa.

Ekainaren 20 osteguna

Zine txiroa, "15 años acompañando a defensores y defensoras de DDHH en Colombia" dokumentala.

Organizan / Antolatzaileak:
Aldea, PBI-Nafarroa, Amnistía Internacional y Mugarik Gabe Nafarroa

Colabora / Laguntzaileak:
Ayto. de Pamplona / Iruñeko Udala



Unibertsitateko Ekonomia Departamentukoa eta Marta Godinez guatemalarraren defendatzailea eta Guatemalako Emakume Sektorearen Aliantza Politikakoa.

■ "ROSTROS QUE LUCHAN. Defensores y defensoras de derechos humanos en primer plano", Pintoko Trilce Cultural y Socialen (Madril).

Nafarroako PBI

■ Beste gizarte-erakunde batzuekin batean, "Colombia, el derecho a vivir en paz" XIV. jardunaldiak, aita Alberto Franco CIPJeko idazkari eragilearen partaidetzarekin.

Kataluniako PBI

■ Beste gizarte-erakunde batzuekin batean, "Feministas y defensoras del territorio ante la criminalización del movimiento social" hitzaldia, Guatemalako defendatzaileekin: Lorena Cabnal Santa María de Xalapan Emakume Indigenen Elkartekoa eta La Cuerdako Natalia Atz de Ceiba eta Paula del Cid.

■ PBIren mahai informatiboa, Montserratoren Entitats d'Olesa ferian.

BORROKAN ARI DIRENEN AURPEGIAK. Giza eskubideen defendatzaileak hurbiletik

2013an, Espainiako Estatuko PBI argazki-erakusketa bat antolatu zuen, honako izenburu hau zuena: "Rostros que luchan. Defensores y defensoras de derechos humanos en primer plano", 30 urtean baino gehiagoan lagundu ditugun giza eskubideen defendatzaileei buruz. 22 argazki dira, gehienak tokiko PBI boluntarioek eginak; lagun-

datuko jendearen eta erakundeen aniztasuna erakusten saiatu dira, eta hartu duten konpromisoan laguntzeko beharra gogorarazten dute. "Rostros que luchan" sentiberatzeko tresna bat da; herritarrei erakutsi nahi zaie zein beharrezkoa den giza eskubideen defendatzaileek betetzen duten lana, gizarte

bidezkoagoak eta berdinzaleagoak izan ditzagun.

Horretaz gainera, PBIren beste webgune bat egin zuten: www.rostrosqueluchan.com; gune horretan daude argazki guztiak; bestalde, giza eskubideak defendatzen dituzten jendeak, erakundeak eta komunitateak ezagut daitezke, eta erakusketaren jarraipena egin.

*“Rostros que luchan”
erakusketaren webguneko
irudia. © EEko PBI.*

Gaztela eta Leongo PBI

■ “Cooperación internacional en la defensa de los Derechos Humanos: Brigadas Internacionales de Paz” txostena, Pepa Pequeñok aurkeztua, Giza Eskubideetan Oinarritutako Ikuspegia Garapenerako Kooperazio Internazionalan jardunaldietan.

Andaluziako PBI

■ “La toma de decisiones por consenso” tailerra, erabakiak kontsentsuan hartzeaz eta PBIren printzipio eta egiturez.

Defendatzaileentzako babes politiko eta laguntza sozial bila. Politikan eragiteko 2013ko ekintza nagusiak

Diputatuen Biltzarra eta Kanpo Harremanetarako eta Lankidetzarako Ministerioa

2013an, bilera sarriekin eta komunikatuekin, giza eskubideen defendatzaileei buruzko kezka eta eskaerak helarazi dizkie PBIk Kanpo Harremanetarako eta Lankidetzarako Ministerioari eta talde parlamentarioetako diputatuei.

2013an, PBIk bost aldiz piztu zuen alerta-sistema:

■ **Kolonbia Proiektua:** Otsailan aktibatu zuten Elizen Arteko Justiziaren eta Bakearen Batzordeko kide baten aurka ekin zutelako, eta irailean, berriz, CIJPeke kideei eraso egin zieten berriro.



■ **Guatemala Proiektua:** Maiatzea aktibatu zen, giza eskubideen defendatzaileen aurkako erasoak larritu egin zirelako, gizarte-mugimenduari eta haren jardunari ospea kentzen ari zirelako eta lege-salaketak egin zizkietelako; uztailan, berriz, legegaitzat, San Juan Sacatepequezko Kaqchikel komunitateetako pertsonak atzemateko eta atxilotzeko aginduengatik.

■ **Mexiko Proiektua:** irailean aktibatu zen, Oaxacan, kezkatzeko moduko bortxatze-olatu bat izaten ari zelako giza eskubideen defendatzaileen aurka.

Baina ez dugu alertan dauden eragile politikoekin bakarrik lan egiten; PBIk arriskuan diren giza eskubideen defendatzaileen lan-eremua zabaldu nahi du, haien segurtasun-azpiegiturak hobetzen eta iraunarazten saiatuta. Alde horretatik, PBIk MAECi besteak beste eskatu dio sar dezala defendatzaileen egoera Kolonbia eta Mexiko 2013an buruz buru jarri zituen Nazio Batuen Aldizkako Azterketa Unibertsaleko estatuen elkarrizketetan. Gainera, tinko eskatu dute aintzat hartzeko Enpresen eta Giza Eskubideen Plan Nazionala eratzeko prozesuan erakundeek eta komunitateek dituzten eskaerak inbert-

sio-proiektuei eta erauzteko megaproiektuei buruz.

Administrazio Autonomikoak eta Tokikoak eta Gizarte Zibileko Erakundeak

Estatuari dagokionez, PBI politikoki eragiten saiatzen da autonomietan, probintzietan eta udalerrietan, hau da, herritarrengandik hurbilen dauden erakunde publikoetan. Horretaz gainera, oso garrantzizkoa da gure arloan lanean ari diren gizarte-zibileko erakundeekin harremana izatea eta haiekin koordinatzea giza eskubideen, garapen-kooperazioaren, nazioarteko elkartasunaren eta abarren inguruan. Baita mundu akademikoan eta zuzenbidean ari diren ordezkariekin ere. 2013an, maiz bildu ginen eta harremanak izan genituen eragile horiekin; besteak beste, hauekin:

Kantabriako PBI

■ Santanderren, Edgar Perez guatemalarrak abokatu eta defendatzailearekin egindako biran, bilerak egin genituen talde parlamentario guztietako diputatuekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko PBI

■ Donostian egindako PBIren Prestakuntza Jardunaldietan —hor aritu zen Santiago Mera CIPJeko kolonbiar defendatzailea—, harremanak izan genituen Donostiako Udalarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen eta Memoria Historikoaren Sailarekin.

Madrilgo PBI

■ Joan den urtean, maiz bildu ginen Espainiako Abokatuen Kontseilu Nagusiaren Fundazioarekin, Kolonbiako, Mexikoko eta Guatemalako defendatzaileen biren inguruan. Bilera horien barnean, honako eragile hauekin egon ginen: Abokatuen Elkarte Librearekin, Amnistia Internazionalarekin, Bakearen Aldeko Mugimenduarekin eta bestelako gizarte erakunde eta profesionalekin, eta haiekin koordinatu eta informazioa partekatu genuen. Bestalde, “Tu Voz Cuenta” espazioan parte hartu genuen emakumeen giza eskubideen alde lanean ari diren bestelako gizarterakunde batzuekin.

Kataluniako PBI

Tokiko taldeak aktiboki parte hartu zuen “Taula per la Pau i els Drets Humans a Colómbia” izenekoan. Franklin Castañedaren eta Ana Maria Rodriguezen biran parte hartu genuen —hurrenez hurren, Preso Politikoezikiko Elkartasunaren Batzorde Fundaziokoa eta Kolonbiako Juristen Batzordekoa—, Kolonbiari egindako Aldizkako Azterketa Unibertsalaren harira. Horretaz gainera, hainbat bilera egin genituen GKEen Kataluniako Federazioko beste eragile batzuekin, Kataluniako Gobernuarekin kooperazio politikari buruz.



Edgar Perez guatemalar abokatuaren bilera, Espainiako Abokatuen Kontseilu Nagusian. © Espainiako Abokatutza.

Gaztela eta Leongo PBI

■ Valladoliden eragite-lan handia egin dugu 2013an. Erakundeetan eta giza eskubideen defendatzaileen eta tokiko PBI proiektuetako jendearen biran, bilerak egin genituen udalarekin eta Valladolideko Probintziako Diputazioarekin, hitzarmen bat egiteko. Horretatik kanpo, bilerak egin genituen Gaztela eta Leongo Juntako Erakunde Harremanetarako eta Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiarekin. Era berea, bilerak eta harreman joria izan genituen Valladolideko Unibertsitateko Giza Eskubideen Behatokiarekin. 2013ko otsailean, Valladolideko Udalak eta Diputazioak Mexiko Proiekturako abal-idatzia sinatu zuten, herrialdearen iparraldean beste talde bat osatzeko. Espainiako Estatuko PBIk urte

hauetan denetan asko landu ondoren, keinu horrekin, bi erakundeek laguntza politikoa indartu dute Mexiko Proiekturako.

Nafarroako PBI

■ Iruñeko Udalarekin harremanak izan zituen tokiko taldeak, eta aita Alberto Francori lagundu zion Nafarroako Parlamentura; hor Bizikidetzeta eta Elkartasun Batzordearekin egon zen. Gero, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak aho batez onartu zuen erakunde-adierazpen bat, parlamentuak elkartasuna eta zoriona emateko Elizen Arteko Justiziaren eta Bakearen Batzordearen lanagatik.

2013ko ekainaren 24an, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak aho batez onartu zuen erakunde-adierazpen bat, zeinaren bidez “parlamentuak elkartasuna eta zoriona adierazten dion Elizen Arteko Justiziaren eta Bakearen Batzordeari giza eskubideen alde eta zigorgabetasunaren aurka egiten duen lanagatik” Kolonbian.

Horretaz gainera, adierazpenean, “Nafarroako Parlamentuak aitortzen du zeinen garrantzitsua den giza eskubideen aldeko erakundeen lanerako nazioartea hor egotea gatazka armatuak dauden eskualdeetan, bi helburu hauengatik: biztanleria zibilaren aurkako erasoak saihesteko eta toki horietan egiten den lana ezagutarazteko”.




El 24 de junio de 2013 la Junta de Portavoces del Parlamento de Navarra aprobó por unanimidad la declaración institucional por la que "el Parlamento de Navarra muestra su solidaridad con los integrantes de la Comisión Intereclesial de Justicia y Paz y felicita su trabajo en la defensa de los Derechos Humanos y su lucha contra la impunidad" en Colombia.

Además, en la declaración, "el Parlamento de Navarra reconoce la importancia de la presencia internacional para el trabajo de las organizaciones de derechos humanos en las regiones de conflicto armado por el doble objetivo a cumplir: la disuasión de ataques contra la población civil y el reconocimiento de la labor que se realiza en estas zonas."

Espainiako Estatuko PBIren finantzatzaileak 2013an

Donostiako Udala (Kolonbia Proiektua)	56.487 €
Iruñeko Udala (Kolonbia Proiektua)	29.750 €
Santanderko Udala (Mexiko Proiektua)	9.356 €
Valladolideko Udala (Mexiko Proiektua)	4.433 €
Valladolideko Diputazioa (Mexiko Proiektua)	30.000 €
Gipuzkoako Foru Aldundia	4.269 €
Cantabria Cooperera Funtza (2011) (Guatemala Proiektua)	26.017 €
PBIren Nazioarteko Funtza	10.000 €
Atzerri Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioa - ODH	4.000 €
Peace Brigades International UK	14.000 €
Bazkideak eta dohaintzak	10.684 €



- Tokiko proiektuak
- Eragitea eta sentiberatzea
- Koordinazioa eta administrazioa

PBI 2013ren tokiko taldeetan aritu diren Espainiako Estatuko boluntarioak

Guatemala Proiektua:

- Lucía Gorosito
- Raquel Rojo
- Rubén Carricondo
- Erika Martínez

Mexiko Proiektua:

- Irene Hernández
- Juan Luis de la Rosa
- Pilar Sanmartín
- Mar Sáiz
- Natalia Slepoy
- Luis Miguel García

Kolonia Proiektua:

- Itziar Caballero
- Monica Pérez
- Carmen Sánchez
- María Begoña Navarro
- Ignacio Hernández
- Anna Jover
- Leticia Madrid
- Miguel Choza
- Alberto Guerrero
- David Molina
- Adriana Isabel García
- Ainhoa Oribe
- Ana Vicente
- Helena Beatriz
- José Antonio Pérez
- Marina Navarro
- Noelia Vizcarra
- Óscar Luis García
- Pedro Lázaro
- Daniel Barrera
- Beatriz Puerta
- Amanda Asenjo



*Mar Saiz Alberto Donis laguntzen, Oaxacako Bidean Anai-arrebak Etorkinen
Aterpeko koordinatzailea. © PBI México.*



Leticia Madrid Bogotan, laguntza batean. © PBI Colombia.

Nazioarteko Bake Brigadak, Espainiako Estatuan
Indarkeriarik ez sustatzen eta giza eskubideak babesten, 1981etik

EEko PBIren bulegoa Gertakarien arduraduna EEko PBI

C/ Gral. Dávila 242 B, 4º B advocacy@pbi-ee.org

39006 Santander Tf: 608 864 012

Tf: (+34) 942 07 10 96 / 659 630 355

admin@pbi-ee.org

www.pbi-ee.org



www.facebook.es/pbi.ee

